

Memoria gorde,  
oraina bizi,  
etorkizuna eraiki,  
izan Kronikalari!



## ▮ JABETZE ESKOLAK

# Duo Do Porturen doinu brasildarrak, Leokan

Jabetze Eskolak hasteko, Ziku eta Hannik osatutako bikote hernaniarrak emango du kontzertua gaur, 22:00etan Leokako labaderoan, Bossa Nova eta Sama Bossa doinuetan oinarrituta.

BADIRA urte batzuk Jabetze Eskolei kontzertu berezi batekin hasiera ematen zaiena, eta ikasturte honetan, gaur emango zaie hasiera, Duo Do Porturen kontzertuarekin, 22:00-etatik aurrera. Leokako labaderoan ariko dira Ziku eta Hanni hernaniarrak, Brasilgo doinuekin. Bossa Nova eta Sama Bossa doinuetan oinarrituta dago beraien musika. Euria egiten badu, atzeratu egingo da emanaldia.

### Bidea moztuta, Larramenditik Portura

Kontzertuaren antolakuntza ahalbidetzeko, trafikoa eten egingo da. Horrela, beraz, gaueko 22:00etatik 23:30etara, Larramenditik Portura dijoan bidea moztuko da. Ahalik eta eragozpenik txikiak sortzea espero du Udalak. ▮



Hanni eta Ziku hernaniarrek eskalniko dute kontzertua gaur Leokako labaderoan.

Argazkia: Jabetze Eskola

## ▮ MUGARRI BISITA

# Mugarri festa urriaren 6an egingo da aurten

Helduentzako eta haurrentzako bi ibilbide antolatu dira eta izena eman daiteke Biterin. Orain 29 urte berreskuratu zen XVIgarren mendean oinarria duen festa hau.

AURTEN 29garren Mugarri bisita antolatu da urriaren 6an, larunbata, eta aurten ere bi ibilbide egingo dira. Helduentzako Antxista-Naparralden zehar eta haurrentzako Ergobia eta Oriamendi arteko ibilaldia.

Haurrak 09:00etan irtengo dira Gudarien plazatik eta helduak berriz, 07:30etan leku beretik.

Esan helduen ibilbidean sei lagunentzako toki da-

goela eta izenematea Biterin kultur etxean egingo da.

### 29 urte berreskuratu zela Mugarri bisita eta festa

Orain 29 urte berreskuraturako festa honek, XVI. mendean du lehenengo erreferentzia idatzia. 1542an sinatu ziren Hernaniko ordenantza berriak. Eta ordenantza haien 14garren artikuluan jasotzen da agintariak, herriak hautatuak izan ondorengo sei

egunetan, herriaren mugak ikuskatu behar zituztela.

Geroztik bisita horiek hainbat aktatan jasota daude, Mugarri bisitan haien inguruko xehetasunak.

Hernaniko mugei bisita berreskuraturako festa bat da, eta mugen ikuskatze hori du bere oinarrian. Mugen arteko ibilbidea adostu ondoren, mugarrien egoera aztertu eta bideen txukunketa egiteko baliatzen da.

### Udala eta Mendiriz Mendi

Egun Hernaniko Udalak eta Mendiriz Mendi elkarteak elkarlanean antolatzen duten jarduera bat da eta helburu desberdinak ditu: Herriko geografaren ezagutza eta hedapena; Identitate ezaugarrienez, herritarren anaitasun eta lurraldea estimatzea; Herriaren iragan historikoari buruzko kontzientzia eragitea eta azkenik lagunarte giroan naturarekin gozatzea. ▮

## ▮ UDALA

### Jaietan animalien erabilera aztergai

Jaietan animalien erabilpenaren inguruko prozesua abiatzeko lehenengo bilera deialdia egin du Udalak. Biterin egingo da, astelehenean, 19.00etan. ▮

## ▮ AHAL DUGU

### Gaur bilerara deitu du zirkuluak

Gaurko bilera deitu du Ahal Dugu Hernani zirkuluak, 17:00etan Biterin. Negurako agenda zehazteaz gain, udal eta foru hauteskundeak landuko dira, eta baita bestelako gaiak ere; besteak beste, hondakinak, bakea eta elkarbizitza, Renfe-Adif, eta adinekoen gizarte mugimenduak. ▮

## ▮ PRESOKA

### Kontzentrazioa, gaur Plazan

Hernaniko preso eta iheslarien senide eta lagunek deituta, kontzentrazioa egingo da gaur, 20:00etan Gudarien Plazan. ▮

## ▮ LANGILEON SAREA

### Batzarra, 18:00etan

Langileon babes sareak kurtso hasierako batzarra deitu du gaurko, 18:00etan, Biterin. Batzarrean kurtso politiko honetan zehar langileon babes sareak izango duen praktika politikoaz eta forma organizati-boaz hitzegingo da. ▮

## ▮ KANIKA TALDEA

### Igandera arte, izenematea

Kanika Aisialdi Taldeko ekin-tzak urriaren 6an hasiko dira eta bertan parte-hartzeko, igandera arte dago aukera izena emateko. ▮

## ▮ BERTSO ESKOLA

### Izenematea, gaur

Ikasturte honetan Hernaniko Bertso Eskolan aritzeko aukera luzatu dute; gaur eman behar-ko da izena, 17:00etan, Biterin sarreran. Bertsoarako gogoia duen edonorentzako irekita dago izenematea. *hernanikobertsoeskola@gmail.com*. ▮

**FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA**

**Asegururik ba al duzu?**

**Deitu Orbegozora**

24 orduko tfnoa.  
**943 33 10 20**

www.funerariarorbegozo.com

Zentrala Latsunbe 7, Hernani

HERNANI ANDOAIN ASTIGARRAGA URNIETA GOIZUETA

Zehaztasun partikularrak, Hiri osagutu osoak, Beldurrik, Kresalduak, Lokuzioak, Eskola, kresaldu...

ANATORIO-BELA

**OINDI**

**taberna**

**NAGUSIA, 25**

**HERNANI**

**943 557 509**

**DORRONSORO**

ORINDEGIA

Ogi egin berria beti zure eskura

**Obadore nagusia Akarregin**

Akarregi poligonoa 14A-2

DENDA, KUTXAK ETA KAFETEGIA

Ordutegia: 5:30-14:30 / 16:00-20:00

Jaiopuntar: 7:00-14:30

**Denda herriko kaxkoan**

Lizeaga kalea 4

OGIA ETA BOLLERIA AUKERAN

Ordutegia: 7:00-14:00 / 17:00-21:00

Jaiopuntar: 7:00-14:00

☎ **TAXIAK:** 943 550093 | **UDALZAINGOA:** 943 248900 | **DYA:** 943 464622 | **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 | **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 943 203020 | **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 33110 ☎ / **Egunez: Etxebeste** Elcano, 9 (Hernani) **943 552087** / **Gaez: Castilla** Urbietta, 7 (Hernani) **943 552941**

**EGURALDIA**  
**GAUR** Eguzkia nagusi oraindik, arratsaldetik aurrera goi-laino batzuk agertu arren. Tenperatura nabarmen jaitsiko da ipar isurialdean eta eguraldi eguzkitsua izango da. **Min.17° / Max.24°**  
**BIHAR** Bihar eguraldi lasaia espero da. Gurean goi-lainoak agerri daitezke, baina eguzkia izango da nagusi. Hain zehazki aldakor ibiliko da eta tenperatura antzekoa. **Min.15° / Max.23°** (euskaime)

## ■ GIBELALDE LIZEAGAKO FESTAK

# Suziriarekin hasiera, gaur jaiei

Txupinazioa 17:30etan lehertuko da eta umeen xakea, aurpegi margoketa, marrazki lehiaketarako material banaketa eta tute txapelketa egongo dira.

TXUPINAZIOAREKIN batera hasiko dira 2018ko Lizeagako jaiak. Gaur 17:30etan izango da hori, eta jarraian haurren xake txapelketa, etxeko txikieinei zuzenduta puzgarriak eta aurpegi-margoketa izango dira. Ondoren marrazki lehia-

ketarako materiala banatuko da eta gauean, 22:30etan tute txapelketa antolatu da Aitan Etxe tabernan. Festa giro itzela nagusituko da eta hainbat ekintza antolatu dira datozen 3 egunetarako. Ekintzok publiko guztiari begira prestatu

dira, noski: haur eta gazteentzat ekintzak izango dira, txapelketa eta lehiaketak ere antolatuko dira, koadrilen afari eta herri-bazkaria, musika ez da faltako, eta adinakoek ere izango dute jai hauetan protagonismoa. ■

## ■ ASVIAMIE

# Cisnerosen familiak 141 mila euroko kalte ordaina jasoko du

Epaitegiak Cominter Tisu papelera zigortu du ordaintzera, langilea amiantoak sortutako biriketako minbiziaz hil eta gero.

DONOSTIAKO epaitegiak Cominter Issu papelera zigortu du, Gureola Scott Iberica enpresaren oinordeko bezela, Juan Cisnerosen familiari 141.000 euroko kalte ordaina ordaintzera; 101.000 alargunari eta 20.000 seme bakoitzari.

Juan Cisneros langile hernaniarra duela urte bete hil zen biriketako minbiziaren ondorioz. Gureola-Scott paper-fabrikari egin zuen lan eta amiantoarekin kontaktuan egon zen 30 urte baino gehiago. Alargun eta seme-alabek kalte ordainengatik 156.000 euroko eskakizuna egin zuten amiantoak kaltetu eta sortu zuela minbizia argudiatuz.

Epaitegiak arrazoi eman die eta erabakiaren arabera Scott Iberica enpresak ez zituen segurtasun eta garbita-

Eusko Jaurlaritzari konpentsazio fondoa sortzea eskatu dio Asviاميةk «enpresen biziraupena arriskuan ez jartzeko»

sun edo prebentzio neurriak bete eta horien lotura kausala sortutako kaltean dagoela dio. Enpresak hainbat Dekretu eta ordenantza ez zituen bete.

Asviامية pozik geratu da hartutako erabakiarekin. Eta amiantoak sortutako minbizi eta heriotzen kasuak izugarriko igoera izan dutela kontuan hartuta konpentsazio fondoa sortzea eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari. «Honela enpresa beraien biziraupena bera ekidinduz litzateke. Garaia

da enpresa, aseguru etxe eta instituzioek barkamena eska dezaten sortu duten minaren-gatik».

### 1962tik papeleran lanean

Cisneros paper-fabrikara sartu zen lanera 1962an ikasidun edo aprendiz bezela eta ondoren mekanikoen mantenuko ofizial egon zen 1993ra arte. Amianto manipulatu zuen Mendia papeleran, gero Gureola-Scott edo Scott Iberican.

Langileari, 2016ko uztailean, biriketako kartzinoma diagnostikatu zioten Donostiako ospitalean. Osalanek 2016ko urrian egin zuen txosten batean kutsadura nola gertatzen zen azaldu zuen. Langileak egiten zituen lanak adierazi zituen eta lan hauek zuten arriskua. ■

## ■ BILGUNE FEMINISTA



Plaza Berrin egon zen erasoaren aurkako kontzentrazioa

### Kontzentrazioa atzo, erasoak salatzen

«Astearteko Bilboko erailketa matxista dela-eta, Euskal Herriko Mundu Martxako Protokoloa aktibatzen» zuen Hernaniko Bilgune Feministak, eta Plaza Berrin kontzentrazioan hernaniar ugari bildu ziren erasoak salatzen. Azken egunetan, gainera, eraso gehiago izan dira estatuan, eta astelehenetan Andoainen bi eraso sexista gertatu ziren. «Eraso guztien aurrean autodefentsa feministarako deia egiten dugu». ■

## ■ PUBLIARGAZKIA ■ AXPI ILUSTRAZIOAK



Ainara Azpiazu, Axpi ilustratzaile hernaniarrak tailerrak eskainiko ditu 18-19 ikasturtean zehar. Astelehenetan 6-9 eta 9-12 urte bitarteko haurrekin marrazketa, pintura eta sormena landuko ditu. 9-12koen taldean badago tokia oraindik, bestea beteta dago. Ostegunetan, berriz, 12 urtetik gorako guztientzat Komikigintza ikastaroa gauzatzeko aukera eskaintzen du. Axpik Hernaniko Andre kaleko 2garren zenbakian dauka tailerra, eta informazio gehiagorako edo izena emateko deitu 652 702 521 telefono zenbakira edo idatzi [axpikoaxpi@hotmail.com](mailto:axpikoaxpi@hotmail.com) helbidera. ■

Andre kalea, 2. Hernani. 652 702 521. [axpikoaxpi@hotmail.com](mailto:axpikoaxpi@hotmail.com)



Argazkia: Ekhiñe Arruti

Osiñagako auzotar koadrila Igeldoko jolas parkean.

## ■ OSIÑAGA

### Igeldoko parkera bisita udara agurtzeko

Osiñagako auzotarrek irailaren 16ean Igeldoko jolas parkera irteera antolatu zuten eta bide batez udara agurtu zuten. Ederki pasa zuten haur, gazte eta helduek. ■

## ■ ANTZERKI MUSIKATUA

### 'Cantores y cantoras' berrero, gaur

Gaur 19:30etan berrero egingo dute Cantores y cantoras ikuskizuna Biterin, Goiz Eguzki eta Ozenki abesbatzek eta Zelanda Antzerki Taldeak. Gonbidapenak bertan eskatu behar dira. ■

## ■ SAN JOAN KONPARTSA

### Dantza ikastaroan apuntatzeko, orain

Aurten ere, euskal dantzetan aritzeko ikastaroa jarriko du martxan San Joan Konpartsak. Irekiak dira, eta apuntatu nahi duenak orain dauka aukera. Horretarako: 695 753 138. ■

## ■ UDAL LIBURUTEGIA

### Azken aukera, ahozko narrazio tailerlean

Hitzaren inguruko jaialdia izango da datorren astean: Hitz-Andana. Ekitaldiak hasteko Ahozko Narrazio Tailerra emango du doan, Beatriz Egizabalek, urriaren 2, 3, 4 eta 5ean, 18:00etatik 20:00etara Biterin. Doan izan arren, izena eman behar da, eta 15 lagunentzako dago tokia. 16 urtetik gorakoentzako da. Izenemateak: [UdalLiburutegia@hernani.eus](mailto:UdalLiburutegia@hernani.eus), 688 635 462 edo 943 55 29 66. ■

## IRAGARKI MERKEAK

Langile bat behar da sukaldetan lan egiteko. Eskarmentuduna eta lanerako gogoarekin. Deitu: 688 746 105

LOGIKALINE enpresak bi lanpostu eskaintzen ditu zuntz optikoa Gipuzkoan komertzializatzen. Kontratu indefinidua, formazio sendoa eta lan-talde egonkorra. Interesatuak bidali C.V.a [rrhh@logikaline.com](mailto:rrhh@logikaline.com) helbidera

Irigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)